



ZER DA ZURETZAT IPARRALDEA?

B2 Iparraldean eta Hegoaldean bizi garen herritarrok askotan ohartzen gara ez dugula ongi elkar ezagutzen, eta ezagututa ere, betiko irudiak, topikoak ditugula buruan. Sekuentzia honetan, horiek alde batera uzten saiatuko gara eta horretarako, Iparraldeko Eke (Euskal Kultur Erakundea) erakundeak Interneten jarri duen dokumental bat erabiliko dugu, *Iparraldea XXI* izenekoa, hain zuzen ere.

Bere egileen hitzetan, dokumentalaren helburua da, ezeren gainetik, Hegoaldeko gazteak hunkitzea, baina ez hori bakarrik. Betiko kliseak uxatuz, Iparraldeko errealitatea aurkeztea: gazteei lehenetsuna emanez, moderno forma aldetik, eta baikorra.

Sekuentzian zehar proposatutakoa eginda, zuk ere Iparraldez gaur egun duzun ikuspegia aldatu eta zabaltzea lortu nahi dugu. Hala izango ahal da!

[Sekuentzia Didaktikoa]



Helburua gauzatzeko, hauek izango dira egingo dituzun lanak:

- Kale-inkesta batean jasotako iritziak irakurrita, galdera horien beraien gaineko iritzia modu laburrean eta idatziz emango duzu.
- Sekuentzian zehar aipatuko diren edukien izenburuak irakurrita, beraien gainean dakizuna edota burura etorritakoa idatziz azalduko duzu.
- Iparraldeko hainbat artista eta talderen inguruko informazioa eta elkarrizketa laburrak irakurriko dituzu.
- Testuetan azaldutako molde batzuei erreparatuko diezu, Iparraldean ohikoagoak diren neurrian, Hegoaldean erabilitakoekin konparatze aldera.
- Bukatzeko, sekuentzian zehar jaso duzun informazioa baliatuz, hasieran idatzi duzun testua berrikusi eta informazio berria erantsi ondoren, testu luzeago bat osatuko duzu.




1 ZER IRITZI DUGU HEGOALDEAN IPARRALDEAZ?

Zer iritzi ote dute Iparraldeaz Donostiako ikasle gazteek? Erantzuna argitu nahian, kalera jo eta galdeketa bat egin zuten 2009ko udaberrian. Hona hemen jaso zituzten hainbat iritzi. Kasu bakoitzean, zeurea idatz dezazun eskatu nahi dizugu:

Zer da zuretzat Iparraldea?

Alaia: -Frantsesa, Biarritz, txalet ederrak eta Iparraldea.



Marina: Negua, kolore zuria, izotza eta lagunak.



Julen: Niri asko gustatzen zait itsasoa, giroa, klima eta etxeak.




Lide: -Euskal frantsesa pixka bat arraroa egiten zait, etxeak, jendea, hango giroa berezia da. Bada, egia esan, asko ez dakit zeren asko ez naiz hara joan, baina... han, mendia etortzen zait gehiago burura.



Ana: Hotza, hondartzak eta mendia edo belardia edo...




Jon: Euskara, kultura, herri txikiak eta ... ez dakit, ezberdina edo, hori... herri txikiak, batez ere.



Zeure iritzia idatzi:

Ezagutzen al duzu Iparraldea?


Ander: Iparraldea? Gutxi, gutxi, gutxiegi.



Lide: Bada, ez, egia esan, ez. Ez dakit, ez daukat batere joerarik horko gauzeekin eta... ez naiz ezertaz enteratzen.




Ana: Bada... kostaldea, besterik ez.



Alaia: Bada... joan nintzen, ez naiz orain dela asko joan, baina egon nintzenean, pila bat gustatu zitzaidan.




Diego: Baiona eta Angelu, hondartzak, olatuak hartzeko.




Alaia: Bada... askorik ez.



Gorka: Bada, maskaradak eta ez dakit zer gehiago.



Ander: Nire aita Nafarroakoa da eta Iparraldera bai batzuetan joan garela, baina oso gutxi, oso gutxi.



Zeure iritzia idatzi:



Zer egiten duzu Iparraldean?



Zein dira desberdintasunak Iparralde eta Hegoaldearen artean?

Ander: Azkeneko aldian, uste dut joan ginela gazta eroatera, baina ez askoz ere gehiago, hori, hori izan zen guztia.

Ana: Bada, Hossegor, Biarritz edo Hendaiara ere askotan joaten naiz, hondartzara. Udan hondartzara joaten naiz eta bestela, zineman edo hemendik mugitzen gara eta ongi egoten gara.

Lide: Batzuek egiten dute euskaraz, beste batzuek ez eta hori, pixka bat arraroa egiten zait.


Alaia: Bada, gehien gustatzen zaidana da hango euskara, zeren... ez dakit... ez da hemen entzuten, polita da, gustatzen zait.



Jon: Donibane-Garazin izan gara, eta... ez dakit, izenatarako oso txarra naiz, baina gero elizak eta bisitatzen, Santa Engraziakoa eta... bai.

Diego: Olatuak harrapatzera edo Angeluko skate-parkera eta Mc Donald's-en edo bazkaltzen dugu.

Jon: Bada, hori ez dakit, ezberdina dela. Frantziatik gertu dagoenez, agian, ez dauka hainbeste zerikusirik Espainiako kulturarekin, Donostian edo bai, gehiago nabaritzen da eragina, euskara ere desberdina da, eta gero, herriko jaiak, maskaradak eta honelako beste hainbat ekitaldi oso politak iruditzen zaizkit.



Zeure iritzia idatzi:

Zeure iritzia idatzi:



2 IPARRALDEA HURBILAGO

Gure aurrezagutza alde batera utzi gabe, ikus dezagun Iparraldeari buruzko zer informazio berri jasoko dugun.

Iparraldea XXI dokumentalean, Yves Sallaberry, *Xala*, da aurkezle-lanetan ari dena. Lehenik eta behin, jakin dezagun zein den bera.

Yves Sallaberry, Xala, pilotariaren biografia laburra



Lekuinen (Lapurdi) jaioa, Yves Sallaberry oso gaztetandik hasi zen pilotan. Hasieran, Ipar Euskal Herriko trinketetan, gazteen kategorian, Frantziako banakako txapeldun bihurtuz.

2000. urtean, 20 urte zituela, hego Euskal Herriko pilota zirkuitu profesionalean sartu zen ASPE enpresaren eskutik. Bi aldiz izan zen Espainiako taldekako txapeldun profesionala, 2002an eta 2007an. Hego Euskal Herriko txapelketa profesionalean nabarmendu den ipar Euskal Herriko pilotaria da Xala.

Iparraldea XXI dokumentalean Hegoaldea eta Iparraldea lotzen dituzten harremanen adibide erudugarria da Yves Sallaberry. Pilotaren bidez, Euskal Herriaren kultura-iraupena sinbolizatzen du. Baina, dokumentalean ikusi ahal izan dugunez, pilotari izateaz gain, baditu beste zaletasun batzuk ere.

Hona hemen, laburbilduta, Xalak aurkeztuko dizkigun edukiak:

- 1.- Euskal Herria Zuzenean jaialdia EHZ
- 2.- Pôle France Surf
- 3.- Amaren alabak taldea
- 4.- Dantza Hirian
- 5.- Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus bertsolariak
- 6.- Jon Eyherabide (Mak taldea) eta Itxaro Borda idazlea

Aurrera egin baino lehen, azter ezazu zerrenda eta idatzi zer dakizun bakoitzari buruz (ezer ez badakizu, izena irakurrita burura datorkizuna idatz dezakezu), horretarako eskaintzen dizugun lekua erabiliz:

✎

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Asko idatzi al duzu? Lasai, aurrerago izango duzu eta testua osatzeko aukerarik!



Euskal Herria Zuzenean jaialdia EHZ (www.ehz-festibala.com)

EHZ festibala 1996an sortu zen. 2002 arte Arrosako herrian (Nafarroa Beherea) iragan zen. Gero, 2008 arte Zuberoako Idauzen ospatu zen, Heletara joan baino lehen, 2009ko ediziorako. Boluntarioek gehienbat antolatuturik, festibal honek kalitatezko kontzertu, ikuskizun bizi eta eztabaidak eskaintzeko asmoa du, denei eskuragarri zaizkien prezioak proposatuz. Festibal ekintzaile honek defendatzen duen mezua da: euskararen eta euskal kulturaren babes eta garapena.

Xala eta Elixabet Aizager (Euskal Herria Zuzenean Festibaleko lehendakaria) hizketan.**Xala.- Bai. Elixabet, festibal hori, zer da?**

Elixabet.- Hitz laburrez, festibal musikala da, festibal euskalduna, 22.000 pertsona biltzen dituen hiru egunez, eta elkartasunez egindako proiektu bat, gazteek egindako proiektu bat, Ipar Euskal Herri aldean, barnealdean, bereziki. Eta badira hamabost urte proiektu hori bizi dela.

Xala.- Zein da festibalaren filosofia?

Elixabet.- Festibal alternatiboa da, bai sozial mailan, bai euskararen erabilpenari dagokionez, bai ekologia mailan, bai ekonomia mailan. Beraz, eskaintza kultural horretan erran dezakegu bi dimentsio badirela: modernoak, musika elektronikoa bezala, eta tradizionalak, eta euskaldunak ala atzerritarrek. Festibala da zinez gazteen proba bat, gazteek egiten ahal duten proba bat, Iparraldean orain hor garelara eta bizi garelara azpimarratzeko.

**Pôle France surf (www.surfingfrance.com)**

Hainbat urtez geroztik, Frantziako Surf Federazioak Frantziako Surf Gune bat abian jarri du Baionako René Cassin lizeoan. Lizeoko hamar bat ikaslek, dagoeneko goi mailako surflari direnek, eskolako ordutegi berezia daukate eta goi mailako kirol-irakas-kuntza jasotzen dute geroago mundu mailako surflari onenen artean sailkatuak izateko. Frantzian bakarra den heziketa gune hori Baionan kokatua izan bada, Ipar Euskal Herriko uhinen hurbiltasun, berezitasun eta maiztasunagatik da.

Xala eta Philippe Malvaux, surf entrenatzailea (Pôle France Surf) hizketan.

Philippe Malvaux.- Pôle France, bigarren mailaren eta batxilerraren artean pasatzen den zerbait da, beraz lizeoan... Frantziako eskoletara joaten diren gazteentzat, egitasmo bikoitza da, aldi berean eskola eta kirola dute eta. Egutegi antolatua dugu: goizetan eskola dute, hiruak arte, eta arratsaldeetan kirola, surfa. Goi mailako kirolari araudi horren izatea, interesgarria da. Izan ere, goi mailako atletak baititugu eta gainera, argiak... ikasketak segitzen baitituzte. Gurea ez da bakarrik "txapeldun" fabrika bat.

**Xala.- Zergatik hautatu duzue Euskal Herria, eta Baiona?**

Philippe Malvaux.- Badira anitz arrazoin (arrazoi asko daude). Lehenik eta behin, uhinen maiztasuna; bigarrenik, negua ezta (gozoa) da, eta bereziki, uhinen aniztasuna. Euskal Herria zinez aberatsa da. Guneak ditugu, surfean egiteko, harearen gainetik datozen uhin mirezgarriak daude... Uhinak oso handiak direnean, Euskal Herriko badietara joan gaitzke, mugarantz. Han uhinak babestuak dira, gehiago iragaziak, eta urte guztian surfa egiten ahal da. Ez da eskualde guztietan berdin: maiz ez da atzera egiteko gunerik, eta uhinak zuzenean heltzen dira. Hemen, hobeki da. Eta itsasoa lodiegi denean (haserre dagoenean, ekaitza denean), gelditu eta beste zerbait egin behar dugu. Eta batzuetan, ekaitza dugunean iparralderantz jotzen dugu. Egoerak bizpahiru aste iraun dezake eta.

Amaren Alabak (www.myspace.com/amarenalabak)

Amaren alabak kantari talde bat da, 6 neskez osaturik: Maider Bedaxagar, Graxi Bedaxagar, Lüxi Agergarai, Arantxa Camus, Ihitz Iriart eta Maika Etxekopar. Abeslari zuberotar hauek 11 urtetan hasi ziren elkarrekin kantatzen. Euskaraz, portugesez, aragoieraz edo italieraz, ohiko kantuak berenganatzen dituzte unibertso berezi baten sortzeko gisan. Kantua dute musika-tresna bakarra eta dantzak maiz laguntzen ditu abesten dituzten aspaldiko doinuak.

Xala, Maika Etxekopar eta Ihitz Iriart (Amaren alabak taldeko kideak)

Xala: Zer da amaren alabak taldea?

Neska-talde bat, sei neska: Graxi, Ihitz, Lüxi, Arantxa, Maider, eta Maika.

Xala: Zergatik euskaraz kantatzen duzue?

Ez baitakigu frantsesez kantatzen! Gu inguratzen gaituzten kantuak denak euskaraz daude. Zuberoako jendea abesten entzuten duzunean, zergatik hasi beharko genuke guk frantsesez kantatzen? Gero, gu ikastolatik igaro gara, ez dugu aukerarik izan frantsesez kantatzeko, ez dugu nahi izan ere, euskaraz hitz egiten dugu txikitatik, ez dugu gogorik frantsesez kantatzeko.



Dantza Hirian (www.dantzahirian.com)

2006an, Donostiako "I.D. Iniciativas Danza" taldeak eta Hendaiako Tailerrak *Dantza Hirian* mugaz gaindiko festibala sortu zuten. Haien helburua dantza garaikidea kalera eramatea zen, antzerkiaren alternatiba bat proposatu eta, era berean, arkitekturaren eta dantzaren arteko lotura bat sortzeko gisan. Mugarik gabe bizitzeko asmoak, alde batetik, eta dantza arloko profesionalen eta Akitania-Euskadiko erakunde publiko zein pribatuen arteko lankidetzako zubiak sortzeko nahiak, bestetik, eraman dituzte mugaz gaindiko proiektu hori abian jartzera, dantza garaikideari oldar (bultzada, eraso) berri bat emateko Baiona-Donostia Eurohiriaren lurraldean.

Xala eta Céline Petrissans (Dantza Hirian festibalaren komunikazio arduraduna)

Xala: Jaialdi berezi honetaz mintza zaitzuke?

Céline Petrissans: Lehen ideia zen, dantza antzokietarik ateratzea karrikara eramateko. *Dantza hirian* bi elkarteek bultzaturik sortua izan da; helburutzat genuen, mugaz gaindiko egitasmo baten egitea. Dantza garaikidearen erakusteko urrik (doan), Euskal Herriko hiri anitzetan.

Helburua da publikoarekin harremanen sortzea. Publikoari ezohizko iraupen laburreko obra koreografiko batzuen erakustea. Jaialdi honetan, berrogei artista badira, hameka (hamaika) konpainia, eta hauen artean, sei euskal koreografo.



Amets Arzallus

Amets Arzallus ospe handiko bertsolaria da, Euskal Herri osoan preziatua. 1983an Donibane Lohizunen sorturik, ikasketak Baionako Bernat Etxepare lizeoan egin zituen, Leioako unibertsitatera joan aitzin (aurretik) kazetaritza ikastera. 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian bigarren atera zen.

Maiana Irigoyen

Maiana Irigoyen 1992an sortu zen Baionan. Baionako Bernat Etxepare lizeoko terminaleko ikaslea da. 17 urtetan, bertsolari belaunaldi berri bat ordezkatzan du, ohitura horretan emaztearen (emakumearen) lekua baieztatuz. Bertsolari txapelketetan maiz parte hartzen du. 2009ko Iparraldeko Bertsolari Txapelketan -18 urtetik beheiti-koen kategorian- bigarren atera zen.

Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus bertsolariak

(www.bertsulari.com)

Idatzia izan aitzin (aurretik), euskara ahozko hizkuntza zen, besteak beste, bertsolaritzak aberasturik.

Xala, Maiana Irigoyen eta Amets Arzallus bertsolariak**Xala.- Badut bertso gai bat zuentzat: Iparraldea XXI Amets Arzallus:**

Modernitate delako horrek eni egin daut zimiko
Frantsestu gara, amerikartu, ez gara gure Herriko
Gure hizkuntza galtzera goaz eternitate guziko
eta beldur naiz ez ote dudan ene begiz ikusiko

Maiana Irigoyen:

Idek begiak, ez beldur ukan, euskaldunak beti hor gara
Gure hizkuntza heltzen ari da eremu berrietara
Atzo baserrin, egun hirian, ahotik belarritara
Alorretatik karriketara jalgi hadi gur'euskara

A.A.:

Arrazoin duzu, jalgiak gira gu karrikaren erdira
Gure hizkuntza ta izaitea biak elgarri begira
Baina karrika horren erdian zerbait gertatzen ari da
Gure gainetik mundu osoko kulturak pasatzen dira

M.I.:

Beste kulturak bai pas'ten dira gurearen inguruan
Ze inporta du, gu euskaldunak gira mundutar buruan
Zaharretarik izanik ere, ez da galtzeko punduan
Lotsarik gabe euskara ahoan ibili gaiten munduan

Jon Eyherabide (Mak taldea) (www.myspace.com/makhiphop)

MAK rap talde bat da. Honen berezitasuna lurralde bati –Euskal Herriari– lotu nortasunaren aldarrikatzea da. Musika mailan, MAK-ek bertsoak eta rap musika, txalaparta eta erritmo kaxa nahasten ditu. MAK-en engaiamendu (konpromiso) politikoak darman mezua honako hau da: mundura ireki behar dugu, gure indarrak, hau da, mendeetan zehar iraun duen gure hizkuntza (euskara) eta "munduko herriaren" gainean dugun ikuspegia, alde batera ez utziz.

Xala eta Jon Eyherabide (Mak taldea)**Xala.- Zergatik rapa?**

Jon Eyherabide.- Rapa entzun genuen gazte ginelarik. Iritsi zen Estatu Batuetatik musika hori eta guk hartu genuen aurpegi kolpe bat bezala. Euskaraz egiten dugu gure ama-hizkuntza delako. Niri iruditzen zait, behintzat idazterakoan, askoz sakonago ala zuzenago deitu dira hitz horiek euskaraz. Bai, normaltasun batekin ateratzen dira hitzak, beste alde batetik ere, apustu bat bezala hartu dugula esatea euskaraz rapa daitekeela.



3 IPARRALDEKO EUSKARAZ, BI HITZ

Aurreko orrialdeetako testuetan, Iparraldean oso ohikoak diren hainbat molde irakurri ahal izan ditugu. Guk horietako batzuk hona ekarri ditugu, laburpen gisa:

Iragan = gertatu
 Erran = esan
 Araudi horren izatea interesgarria da = Araudi hori izatea/edukitzea interesgarria da
 Anitz arrazoin = arrazoi asko, ugari
 Surfa egiten ahal da = surfa egin daiteke/egin ahal da
 Hobeki da = hobe da
 Itsasoa lodiegi denean = itsasoa haserre dagoenean, ekaitza denean
 11 urtetan hasi ziren = 11 urterekin/11 urte zituztela
 Berenganatu = bereganatu
 Unibertso berezi baten sortzeko gisan/lotura bat sortzeko gisan = Unibertso berezi bat sortu nahian/lotura bat sortzeko asmotan
 Karrikara kalera = kalera atera
 Urririk = doan
 Hiri anitzetan = hiri askotan
 Publikoarekin harremanen sortzea = Publikoarekin/Publikoarekiko harremana sortzea
 Obra koreografiko batzuen erakustea = Obra koreografiko batzuk erakustea
 Hameka = hamaika
 Aitzin = aurretik
 Donibane Lohizunen sorturik = Donibane Lohizunen jaioa
 Emaztea = emakumea
 Maiz = askotan
 Ez beldur ukan = ez beldur izan
 Jalgiak gira = atera gara
 Ibili gaiten = ibil gaitezen
 Lurralde bati lotu nortasunaren aldarrikatzea – Lurralde bati lotutako nortasuna aldarrikatzea
 Gazte ginelarik = gazte ginela/ gaztetan

4 HOBETO EZAGUTZEN AL DUZU ORAIN IPARRALDEA?

Sekuentziari bukaera emateko, bi proposamen ditugu zuretzat:

- Bata, 18. orrialdean idatzi duzuna berrikusi eta sekuentzian zehar jasotako informazioa eranstea, testu luzeago bat osatuz.
- Bestea, galdera honi erantzunez, zure iritzia ematea: Zein dira, zure ustez, *Iparraldea XXI* dokumentalean aipatu ez eta Iparraldeari buruz esan beharko liritekeen kontuak?

Gustura jasoko ditugu zure idatziak eta beti bezala, saritu ere egingo ditugu. Gure helbidea: argitalpenak@habe.org

Gogoan izan!

Iparraldea XXI dokumentala osorik ikusi nahi duenak, jo dezala helbide honetara: www.iparraldea.info

